

Badator Aneren urtebetetze-eguna. Patxik arazotxo bat du eta aitonari kontatu nahi dio:

–Aitona, ez dakit zer oparitu Aneri eta hiru egun baino ez dira falta.

–Tira, izango da haren gustuko zerbait, bada! –dio aitonak.

–Anek ipuin bat nahi zuen, baina amak erosiko dio eta, gainera, nik nahiago dut beste zerbait oparitu.

–Oparia zeuk egingo diozu, beraz zuri gustatzen zaizun zerbait izan behar du –esan du aitonak.

–Badakit! Nire kromo-bilduma ikusten dugun bakoitzean, begiak argitzen zaizkio Aneri eta animaliak oso politak direla esaten du. Oparitu egingo dizkiot!


Kromo-bilduma oparitzeaz gain, aitonak esandakoa dabilkio buruan Patxiri. Papera eta arkatza hartuta, idazten hasi da:

«Zure urtebetetze-eguna
goazen ospatzera
zure senide eta lagunok
guztiok bat-batera.
Pozarren gatoz egun honetan
belarritik tiratzera
eta kandlei putz egitean
zorionak abestera».



Aitonari eman dio irakurtzeko. Olerkitxo hori Patxik Aneri bere urtebetetze-egunean egin diezaiokeen oparirik zoragarriena iruditu zaio aitonari.

Anek gurasoei erakutsiko die, lagunei irakurriko die eta nebak idatzia dela esango die guztiei. Gero, bere karpetan gordeko du.



1. Zergatik dago kezkaturik Patxi?

2. Zenbat egun falta dira Aneren urtebetetzerako?

3. Norekin ari da hizketan Patxi Aneren opariari buruz?

4. Zer erosiko dio amak Aneri?

5. Zerena da Patxiren kromo-bilduma?

6. Anek animaliak politak direla esaten du. Zer gertatzen zaio begiratzean?

